



PRENTSA-OHARRA

Teatro Gorakada konpainiak euskarazko ipuin klasikoak berrasmatuko ditu, larunbatean, txotxongiloak baliatuta, Mendillorriko Civivoxean

Titirikontu 12:00etan eta 18:00etan taularatuko da, eta sarrerak 3 euroan eros daitezke Civivoxean eta www.pamplonaescultura.com webgunean

Teatro Gorakada konpainiaren eskutik taularatuko da, datorren larunbatean, Mendillorriko Civivoxean, *Titirikontu kontari* txotxongilo-ikuskizuna, non Bizkaiko konpainiak ipuin klasikoak berrasmatuko baititu, horiek formatu erraz, dibertigarri eta ausartean kontaturik 3 eta 7 urte arteko hurrei. Iruñeko Udaleko euskarazko haur-programazioaren aurreko beste saioetan bezala, bi emanaldi egongo dira, 12:00etan eta 18:00etan. Bi emanaldietarako sarrerak 3 euroan eros daitezke ohiko bideen bitartez: aurrez aurre Civivoxean bertan, eta online, Udalaren www.pamplonaescultura.com eta www.pamplona.es webguneetan.

Titirikontu kontari Gorakada konpainiaren sorkuntza propioa da, eta ipuin hauek hartzen ditu abiapuntutzat: *Zapataria eta iratxoak*, *Barbantxo* eta *Urretxindorra*. Manipulazio teknika desberdinak (bunraku, itzalguneak, objektuak) eta musika-konposizio zaindua baliatuta, Gorakada konpainiak ikusle dituen haurrak eramango ditu urrutiko Txinara, non txori baten txioek enperadoreari erakutsiko baitiote bizitzearen gozamenak. Horrez gain, pertsonaia ñimiño batek erraldioen mundu batean dituen abenturak kontatuko dizkigute, eta errealitatea eraldatzen duen “zapatuende” baten magia. Osagai horiek guztiek bihurtzen dute *Titirikontu* ikuskizuna arin eta informal, halakoa non ikusleak abenturaz, magiaz eta ilusioz beteriko mundu fantastiko batean bizitzea lortzen baitu Gorakada konpainiak.

Antzezlanaren jatorrizko ideia Alex Diaz eta Javi Tiradoren da, eta Ricardo Combiren gidoiarekin gauzatu da. Alex Diaz bera aritzen da zuzendari-lanetan, eta Reyes Moleres eta Leire Ucha aktoreek txotxongiloak biziarazten dituzte. Javi Tirado eta Santiago Ramos arduratzen dira, hurrenez hurren, eszenografiak eta musikak.

Euskarazko haur-programazioaren hurrengo saioa apirilaren 14an izango da, Mendillorriko Civivoxean, eta Zirika Zirkus konpainia nafarraren *Ondorengoak* antzerki- eta zirku-ikuskizuna taularatuko da.





Konpainia

Teatro Gorakada konpainiak 25 urteko ibilbidea dauka, eta urte horietan, eskularrutxotxongiloak eta aktoreak abiapuntu, teknika, estilo eta eszenaratze askotarikoak garatuz joan da. Sortu zenetik, antzerki- zein pedagogia-esparruko kolaboratzaileak izan ditu bidelagun.

Gorakada Teatroaren jomuga haur eta familiendako antzerkia izan da, eta horra bideratu dituzte indarrak eta lanak, haurrendako antzerkia duin bihurtzeko asmoz hainbat genero eta formatuko ikuskizunak sortuz: kale-antzerkia, egile-antzezlanak, testu literarioen moldaketak, etab.

Urte hauetan, Gorakadak ekoiztutako 23 ikuskizunen 1.900dik gora emanaldi eman dituzte, eta horietan 900.000 bat ikuslek parte hartu dute, askotariko programazio eta nazioko zein nazioarteko jaialdien barruan.

Iruñean, 2018ko martxoaren 22an.

